

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **Lehendakaritzaren izaera orokorreko ebazpena, foru arauen testu bateginak onesteko araugintzako foru dekretuen izapidetzari buruz**

Lehendakaritzaren izaera orokorreko ebazpena, foru arauen testu bateginak onesteko araugintzako foru dekretuen izapidetzari buruz.

#### HITZAURREA

1. Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak (urtarrilaren 25eko 9. ALHAO), 62tik 66ra bitarteko artikuluetan erregulatzen du Foru Aldundiari araugintza-eskuordetza egitea, hau da, foru-gobernuari eskumena ematen zion foru-arau mailako xedapen orokorrak eman ahal izateko; Araugintzako Foru Dekretuak esaten zaie, Batzar Nagusiek hala eskuordetu dutenean.

2. Xedapen horiek artean bada testu bateginak egiteko araugintzako eskuordetza. Behin Foru Aldundiak eskuordetutako ahalmena eginda, Batzar Nagusiei jakinaraziko zaie eta, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 65.2 artikulua xedatzen duenez: "Batzar Nagusiek Araugintzako Foru Dekretua baliozkotu edo indargabetuko dute, beren araudian ezarritako izapidetzen arabera"

3. Gure funtzionamendu araudiak ez du berriazko xedapenik testu bateginak egiteko araugintzako dekretu hauen izapidetzaz; hortaz, beharrezkoa da Izaera Orokorreko Xedapen hau onestea, kontuan izanik bai transkribatu den artikulua dioena, bai 1/99 Araugintza Foru Dekretuaren izapidetzak ezarritako aurrekaria, zeinean Mahaiak osoko bilkurari bidaltzea xedatu baitzuen, irakurketa bakarreko prozeduraz oneste aldera.

Horregatik guztiagatik, Ganberako lehendakariari dagokion eskumen interpretatzaile eta osagarria baliatuz, Araudiaren 45.4 artikuluan ezarritakoaren arabera eta Mahaiaren eta Bozeramaileen Batzarraren adostasunarekin, ondorengo Izaera Orokorreko Xedapena Ematen dut:

1. Foru Aldundiak abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak erregulatzen duen Batzar Nagusien araugintza-eskuordetza baliatzen dutenetan, dekretu horiek eskuordetzako foru-arauan bertan horretarako xedatutakoaren arabera izapidetuko dira Batzar Nagusietan.

2. Horren inguruan berriazko xedapenik eman ezean, Osoko Bilkuran irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetuko dira.

3. Araugintzako dekretua baliozkotzea ezin izango da osoko bilkuraren gai-zerrendan jaso harik eta gutxienez hamabost egun igaro arte batzarkide-taldeei testua helarazten zaienetik.

4. Baliozkotzeko erabakia Arabako Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean eta ALHAOn argitaratuko da.

Xedapen iragankorra. Izaera orokorreko ebazpen hau onesten den unean izapidetzen ari diren araugintzako dekretuei dagokienez, epea ebazpena onesten den egunetik aurrera hasiko da zenbatzen, argitaratu ala ez.

Azken xedapena. Ebazpen hau Arabako Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean eta ALHAOn argitaratuko da eta indarrean sartuko da azken horretan argitaratu eta biharamunean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 7a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**